

GIG 58

ANDUTZ MENDIKO DOLINAK

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 2

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Andutz mendia (612 m) Geoparkearen barneko lurraldean den begiratoki natural onenetako bat da. Arrezife-motako karbonatozko faziesez osatuta dago (GIG 2), eta ia erabat bertikalean daudenez, karekizko paketeen diren atalen arteko kompetentzia-aldeak oso ondo ikusten dira goitik begiratuta, estratifikazioaren norabidean. Kareharrizko fazies masiboek kompetentzia-maila handiagoa dute higadura kimikoarekiko; aldiz, fazies estratifikatuak errazago disolbatzen dira, eta zenbait dolinaren lerroak sorrarazi dute. Dolina horiek guztiak ikusgarri samarrak dira, 20 metro inguruko diametrokoak, eta 10 metroko garapen bertikala dute, gutxi gorabehera.

Andutz mendiko dolinak azpimarragarri izatearen arrazoia ez da garapen handikoak izatea, baizik eta Geoparkeko gailurretako batean egotea, horrek garbi erakusten baitu kareharrien disoluzio kimikoa lurralde osoan eta 3 dimentsioetan gertatzen dela.

NOLA BERTARATU

Itziar aldetik Andutz mendira igotzeko dauden bideetatik edozein har daiteke.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Andutz mendiaren gailerreko dolina handi bat.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555136 m / Y= 4790360 m / Alt.= 569 m



Andutz mendiko dolinak, tontorretik ikusita.